

Testuinguru honetan, euskararen aldeko mobilizazio herritar zabalaren ispilu bizienerako bihurtu da Korrika; AEK, berriz, mugimendu horren begirapuntu eta eragile nagusienetakoa gertatzen da gaur egun.

Inoiz baino erantzunkizun handiagoa izan dezake euskalgintzako mugimendu herritar osoari, euskal gizarteari eta erakunde publikoei begira. Horretarako barnera begirako hainbat alderdi ere hobetu edota egokitu beharko ditu: organizatiboa, administratiboa, profesionala, laborala, didaktikoa, militantea... Ez gara inori bideak markatzen hasiko; jakin badakigu, ordea, arazo horiek eta beste hainbat aztertzeko, eztabaidatzeko eta bideratzeko oso baliozkotzat eta emankortzat agertu zuela AEK-k orain dela hilabete batzuk Lizarran egin zuen hiru egunetako mintegia.

Euskal Unibertsitatea, arazo irekia

1915ean Alemaniako juduek finantzaturiko Institutu Teknikoa sortu zuten Haifan; eta irakaskuntz hizkuntzatat alemana erabiltzea erabaki. Oposizio gogorra sortu zuen erabaki horrek irakasleen eta ikasleen artean; irakasleen sindikatuak bultzatuta grebara jo zuten irakasleek eta ikasleek. Institututik kanpo eskolak hebraieraz; atzera jo behar izan zuten Institutuko agintariek, eta hebraiera ezarri bertako irakaskuntz hizkuntzatat. Erabakiorra izan ziren greba eta ondoko erabakia, ordurarteko zalantzak gainditzeko. Handik lau urtetara etorri zen Unibertsitate hebraiarra eraikitzeko erabakia; bertako hizkuntza nagusia zein izango zen zalantzarik ere ez zen egon: hebraieraren aukera eginga zegoen irakaskuntzaren maila guztietarako, haurtzaindegirako eta unibertsitaterako. Gaur egun ingelesa eta bestelako hizkuntzak ere erabiltzen dituzte Unibertsitate hebraiarrean zenbait ikastarotan; baina hebraiera da ofiziala eta guztiz nagusia.

Euskal Unibertsitatearentzat eredu izan daiteke Unibertsitate hebraiarraren hizkuntz politika. Maila guztietako eskola euskaldunaren bide urratzen ari garen honetan, Unibertsitate euskaldunaren arazoa bizi-bizirik daukagu. Horixe nabarmendu digute ikastaro honetan zehar eta berriki gertaturiko eztabaidek eta borrokek.

Joxe Ramon Etxebarriak, Koldo Gorostiagak eta Izko de la Igleziak amaitu berria duten luzaroko itxialdiaren ondoren, Euskal Unibertsitatearen arazoa irekita gelditzen da. Horien eta besteen itxialdiek, gose-grebaldiek eta manifestaldiek gauza bat utzi dute argi: irakasle batzuren lan -eta kontratu- arazo pertsonalaz harantza, etorkizuneko Euskal Unibertsitatearen arazoa dagoela, bereziki horren euskalduntzearena. Izan ere, estatuko funtzionari izatearen aurkako jokabidean, jarrera pertsonal, etiko eta politikoaz gain, EHUrako irakaslego propioaren eskabidea dago, benetan Euskal Herriko Unibertsitate propioa eta euskalduna lortzeko bide beharrezkotzat joa, irakasleek beraiek behin eta berriro argitu dutenez.

Horregatik, kanporaturiko irakasleen laguntza-taldeek arazoa pertsonalak konpontzeko elkarrizketaren eta akordioaren bidea eskatu eta bultzatu dutenean, Euskal Unibertsitate euskalduna lortzeko funtsezko baldintzen arazo iraunkorarekin lotuta eraman dute

eskabidea. Horietako bat, prentsan agertua, honela hasten da: "Euskal Herriko Unibertsitate euskalduna guretzat kezka handia izaki..."

Azkenean elkarrizketok bideratuta daude. Seguruena beren fase ezberdinak edukiko dituzte, eta agian metodoz bereizi beharko dituzte kanporatuen arazo laboral pertsonalak eta Unibertsitateko irakaslego propioaren arazo instituzionalak eta Unibertsitatearen autonomiak dituen ondorioak. Baina lehengoak nekez utzi ahal izango dituzte itxita, bigarrenak eta hirugarrenak irekita eta bideratuta ez dauden bitartean.

Istilu eta eztabaida guztien azpian Euskal Unibertsitatearen ereduaren arazoa dago, beraz, eta horren barruan euskararen lekuarena: Laburtuz, Euskal Unibertsitate euskaldunarena, eta horretara iristeko bidearena. UEUren barruan ere biziagotu egin da azken urteotan horri buruzko eztabaida; eta hori zabaldu eta sakontzeko batzordea ere eratua du. Arazoa Unibertsitatearena eta unibertsitariena da aurrenik noski, baina baita gizarte osoarena ere. Eta bestelako alderdi eta konnotazio bereziak baldin baditu ere, euskara normaltzeko eta Euskal Herria euskalduntzeko prozesu osoaren barruan aztertzea da arazoa.

Horregatik euskararen normalkutzaren politikaren ardura daramateñak eta euskalgintzan diharduten indar eta erakunde sozialek arreta osoz hartu beharko dute hemendik aurrera Euskal Unibertsitate euskalduna lortzeko helburua. EKBren barruan ere Unibertsitatearen sailak orain arte baino biziago eta eratuagoa izan behar du, bertako ahaleginak eta arazoak bestelako sektoretara komunikatzeko eta horien ahaleginekin eta arazoekin koordinatzeko.

Duela hamar urte, Eusko Jaurlaritzeko Euskararekiko Aholku Kontseiluak onarturiko hizkuntz politikaren ardatzen artean zegoen irakaskuntzaren euskalduntzea. Uste izatekoa da ardatz horren barruan sartzen dela Unibertsitatea ere. Eskolaren euskalduntzeak Unibertsitatearen euskalduntzea eskatzen du gaur egun, euskararen normalkuntza osoa izango bada.

Gai, ikastaro eta titulazio ezberdinetan euskara sartzeko eginiko ahaleginak ukatu gabe, oraindik oso urruti dago EHU ikasle euskaldunei unibertsitateko ikasketak euskaraz egiteko aukera eskaintzetik; aurtengo ikastarorako ipinitako helburuetan, 38 titulaziotatik 13 bakarrik zeuden A ereduak, hau da, titulaziorako asignatura guztiak euskaraz eskainiko zituztenekoak, eta horietako gehienak ere espezialitate batzutan bakarrik.

Hainbatek, ordea, funtsezko galdera eta zalantza du ipinia: ea EHU honen ereduak eman ote dezakeen benetako euskal Unibertsitate euskaldunik.

EK2000